

# TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza <sup>info</sup>

Osteguna, 2010eko abenduaren 2a. VIII. urtea. 2.133. zenbakia. [www.tolosaldea.hitza.info](http://www.tolosaldea.hitza.info)

## Aranburu jauregiko erakusketa japoniar txotxongiloek hartu dute

Japonia da aurtengo Tolosako Titirijai Txotxongiloen Nazioarteko jaialdian lurralde gonbidatua; erakusketa abenduaren 8ra arte egongo da ikusgai

Pertsonaia ezagun ugari ikus daitezke, tradizionalak nahiz berriak; txotxongiloekin ikusleak «liluraturik» geldituko direla azaldu dute jaialdiaren antolatzaileek ◊4-5



## Guatemalako genozidioaren «egia» Tolosatik pasa da

‘La Isla’ dokumentala zinema sozialaren barruan estreinatu dute; hiru hamarkadetan «250.000 lagun» erail zituen estatuak ◊6

## Hernialdeko frontoia eta plaza berri dituzte

Udalak ez du mailegurik eskatu behar izan, «diru poltsa bat» zutelako eta Landagipuzkoa 32 programaren bidez egin direlako lanak ◊3

## Frontenis txapelketaren azken txanpa

Asteburu luze honetan jokatuko dira azken partidak Berrobin ◊7

## Areson antzerkia eta zinema euskaraz

Kultur Elejiraren barruan antolatu dituzte asteburuko ikuskizunak ◊7

→ **Ingurumena zaintzeko kanpaina Usabalen.** Tolosako Usabal kiroldegia, bosgarren urteurrena ospatzearekin batera, ingurumenarekiko sentsibilizazio kanpaina jarri du abian Tolosaldeko Mankomunitatearekin batera. Erabiltzaileei hondakin gutxiago sortzeko eskaria egiten die, besteak beste, erakusketa batekin. ◊2

Zatoz HITZAko bulegora zure mahai egutegiaren bila!



# Ingurumenarekiko sentsibilizazioa bultzatu nahi dute Usabal kiroldegitik

Tolosaldeko Mankomunitatearekin batera hondakinengatik inguruko erakusketa jarri du ikusgai

## Erredakzioa Tolosa

Tolosaldeko Usabal kiroldegia bost urte bete ditu eta urteurrena aprobetxatuz ingurumenarekiko sentsibilizazio kanpaina martxan jarri du Tolosaldeko Mankomunitatearekin batera. Hainbat ekimen bultzatu dituzte, horien artean *Hondakin gutxiago, ongizate gehiago* izeneko erakusketa ibiltaria. Erakusketa kiroldegian bertan dago eta urtarrilaren 7a arte egongo da ikusgai. Beste zenbait ekimen ura, papera eta argia aurrezteko burutuko dituzte kiroldegia kudeatzen duen Kirolzer enpresak.

Kiroldegia guztira 9.100 bazkide eta egunero 1.700 erabiltzaile ditu eta lau eremutan sentsibilizatu nahi ditu. Urtean 50 milioi litro ur gastatzen dituzte kiroldegia eta beraz, moderazioz kontsumitzeko eskatzen die. Paperari dagokionez, 581.400 metro paper kontsumitzen ditu. Hondakinengatik, kiroldegia berziklatze puntu bezala identifikatu izatea nahi du eta erabiltzaileei eskatzen die ahal den hondakin gutxiena sortzea bai instalazioaren barruan eta baita kanpoan ere. Energiari dagokionez, urtero 230.000 kw elektrizitatean eta 2,4



Erakusketa ibiltariaren zati bat kiroldegia harreran dago. I. TERRADILLOS

milioi kwh gasean kontsumitzen du.

Hain justu, gai horiekin lotura duen erakusketa da *Hondakin gutxiago, ongizate gehiago*. Zazpi panel ditu eta hondakin gutxiago sortzeari, ekodiseinuari eta ura aurrezteari buruz azalpenak ematen ditu. Deigarriak dira kiroldegia harreran dauden irudia -Tolosa hondakinengatik ikusten dena- eta panelen aurrean dagoen iturria.

## Hiru ekintza

Sentsibilizazio kanpainaren baitan hiru ekintza jarri ditu martxan kiroldegia. Alde batetik kaxa bat jarriko dute eta bertan erabiltzaileek eguneroko erabilerari buruzko iradokizunak jarri ahal izango dituzte. Bestetik Eguerrietako zuhaitza jarriko dute eta erabiltzaileek apainduko dute

berziklatutako materialekin. Azkenik, abenduaren 27tik 31ra kiroldegia antolatuko dute. Bertan bost laguneko taldeek parte hartu ahal izango dute. Parte-hartzaileentzat bi bizikleta zozketatuko dituzte. Beste hiru bizikleta kanpainan parte hartzen duten artean zozketatuko dituzte. Horrez gain, beste bost bizikleta zozketatuko dituzte erabiltzaileen artean, astero bat, bosgarren urteurrena ospatzeko.

Aurrera begira lau asmo ditu kiroldegia: igerilekuko ur beroaren berreskuraketa beste erabilerak izateko, sistema elektrikoan hobekuntzak eguneko 550 kw/h-ko gehienezko kontsumoa txikitzeko, ur beroaren memento-ko produktzio sistema ezartzea eta kogenrazioaren bidez (orain arte %36a lortu du) behar den energia elektriko guztia sortzea.

# Sahararen aldeko ekimenak eskualdean

## Erredakzioa

Alegiako eta Ibarako udalek onartu berri dute Sahararen aldeko mozioa, Marokok Aaiunen kanpoaldean sahararrek sortutako kanpalekuari egindako erasoak gaitzetsiz.

Bestalde, Alegiako Intxurre elkarteak futbolaren jubenil taldeak ekimen burutu zuen asteburuan, Saharako banderarekin atera baitziren futbol zelaira. In-

txurreko bi jokalarik sahararrek dira. Euskalduna taldearen aurka zuten partida eta berekin hitzartu zuten banderarekin ateratzea. Partida 3-3 amaitu zuten.

Futbol kontuekin jarraituz, Intxurreko Erregional mailako taldeak Oriokoren aurka denboraldiko bigarren garaipena eskuratu zuen pasatu berri den asteburuan. Alegiako taldeak egun sei puntu ditu eta azkenbigarrena da sailkapenean.



Intxurre eta Euskalduna taldeko jubenilak Saharako banderarekin. HITZA

## → Laburrak

### Haurrentzako filma eta 'Everesteko trekinga', gaur

**AMEZKETA** Buruntzuzin antolatzen ari den mendi astearen azken eguna da gaur. 17:30ean *La odisea de Maud Foutenoy* haurrentzako filma ikusgai izango da. 20:00etan *Everesteko trekinga* hitzaldia emango dute Jose Manuel Oterminek eta Iñaki Etxeberriak.

### 'Alpeetako eskaladak' diapositiba emanaldia

**ALEGIA** Gaztetxearen urteurrenaren harira antolatzen dituzten ekitaldiei hasiera emango die gaur egingo den *Alpeetako eskaladak* diapositiba emanaldia. 19:00etan hasiko da, gaztetxean, eta Iñaki Arzelus tolosarra eta Aitzol Doiartzabal ibartarrak emango dute. Besteak beste, Grand Capuccine eta Aiguilly du Midi mendiko eskaladak erakutsiko dituzte.



## Hilberriak

### ASUN LEKUONA

Zuhaitz ederraren antzera  
utzi duzu mundua,  
fruitu ederrez betea

Zure lankideak  
Eroski - Ordizia

ORDIZIA, 2010eko abenduaren 2a

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta  
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan  
DOAN agertuko da

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

**HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle**

ESKELAK • 18:00ak arte hartzen ditugu • [tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info](mailto:tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info) / Tel.: 943-65 56 95

**HILETAREN BALIOA** Txina Inperiala

Funeraria Vascongada ere pertsonen dugu pertsona bakartzak bere neumiko fileta izan behar duela. Horregatik, alor horietan lider garenez, aukera ekonomiko guztietara egokitzen diren Hileta Zerbitzu Packak eskaintzen ditugu gure kalitatearen bermearekin.

Berreskurazina da galdu duzuna, baina laguntza eskainiko dizugu dena erazagoa izan dadin.

**FUNERARIA VASCONGADA** EHORZKETAK

902 402 900

[www.funerariavascongada.com](http://www.funerariavascongada.com)

# Lau urteko etenaldia eta gero, oraingo dalak herriari itxura berria eman dio

Urte obretan pasa ostean, larunbatean inauguratu zituzten plaza, frontoia eta baserri bide bat.

**Eneritz Maiz** Hernialde

Hernialdeko udal ordezkariak, larunbatean inauguratu zituzten Landagipuzkoa 32 programaren bidez egindako lanak. Bertan izan ziren Rafael Urribarren, Landa Ingurunearen Garapeneko diputatua eta Florentino Ugalde, Etorlurreko gerentea ere.

Aurreko legealdian, herria egoera berezian egon zen. Ez zen udal ordezkariarik egon eta ez zen ia inbertsiorik egin. Aurten aldez, plaza, frontoia eta Maiotz eta Olatzabarrena baserrien arteko bidea egokitu dituzte.

1997. urteko proiektua zen plaza berritzearena. «Lehen fasea egin zuten baina bigarren zatia egiterako, udala ordezkariarik gabe geratu zen. 2007. urtean sartu ginenean, berriro heldu genion proiektuari. Eta diru laguntzaren



Igaro Balda alkatea, herriko plaza eta frontoi berritua atzean dituela. E.MAIZ

bat ateraz gero, bertara aurkeztu ahal izateko proiektua prest geneukan» gaineratu du Baldak.

Honekin batera, frontoia ere zaharkitua zegoela gogoratu du. «Ia 24 urte zeramatzan obrarik egin gabe. Ituteak eta frontisa zulatuta zituen. Egoera txarrean zegoen». Eta baserri bide bat ere konpontzeko eskaera egin zuten Foru Aldundian.

Laguntza handiak jaso dituztela dio Igaro Baldak «plaza eta frontoia egiteko diru laguntzak %90ekoak izan dira. Eta bidea egiteko %80ko laguntza jaso dugu».

Aurreko legealdian udala egoera berezian egoteak eta ia inbertsiorik ez egiteak, diru poltsa bat edukitzea ekarri du. «Poltsa hori zegoela aprobetxatuz, falta diren zatiak ordaintzeko erabili dugu».

Plaza berritzeko egin den inbertsioa, 160.000 eurokoa izan da eta udalak 140.000 euro jaso ditu. Frontoiko inbertsioa, 140.000 eurokoa izan da eta horietatik 20.000 euro udalak jarri behar izan ditu. Eta bidea egiteko, 266.000 euro gastatu dituzte eta Foru Aldundiak, 212.000 euro jarri ditu.

«Lau urte horietan egindako diru poltsari esker, ez dugu mailegurik eskatu»

Plaza berritzearekin, aparkatzeko lekua gutxitu da eta herritarrek kexatu egin dira. «Baina, udaletxe azpiko lurretan ere aparkalekuak egokitu ditugu». Frontoia, urdin kolorez margotu dute. «Aian ikusi genuen eta gustatu egin zitzaigun» dio.

Bestalde, hauek gain, kirol askotarako pista egingo dute frontoiaren atzean. 101.000 euroko inbertsioa egingo dute eta 50.000 euroko laguntza jaso dute. Guztia dela eta, Hernialdeko Udalak zuen «diru poltsa amaitu dela» azpimarratzen du alkatea.

## → Laburrak

‘Ojos de Julia’ eta ‘Como perros y gatos’ Gurean

**VILLABONA** » Gurea Zinemaren, bi film ikusteko aukera izango da. Larunbatean, 19:30ean eta 22:15ean, *Ojos de Julia* filma eskainiko dute. Igandean, 16:30ean, *Como Perros y Gatos* filma izango da eta 19:30ean *Ojos de Julia* ikusteko aukera dago. Astelehenean, 21:30etik aurrera, *Ojos de Julia* filma izango da.

Migel Zalakain omendu dute Belabietan

**VILLABONA** » Villabonak Migel Zalakain omendu zuen azaroaren 28an, Belabietako parajeetan. Anmistiaren Aldeko Mugimenduen esanetan «aurtegoak indar berezia hartzen du, bere semea zen Mikel Zalakain ekainaren 24an Korsikako ospitale batean zendu baitzen». Migel Zalakaini eta bere senideei omenaldia eskaini zieten Belabietan. Ondoren, Senide, lagun eta Anmistiaren Aldeko Mugimenduko ordezkariak bazkaria egin zuten. Hil zen egun berean egindako Mitxel Sarasketaren hitzaldian, «udal aretoa jendez bete zen».

## Irudia » Tolosa



## ARALARTIK, PATXI AIERBE

Patxi Aierbe, Foru hauteskundeetara Aralarrek Oria barrutian aurkeztuko duen zerrendaburua da. Tolosan eskainitako prentsaurrekoan adierazi duenez, «Aralarrek hauteskunde horietara begira duen erronka nagusia Gipuzkoan ezkerreko alternatiba abertzalea indartzea da». *Entzun nahi zaitugu* kanpaina abenduaren 18an Tolosan izango da. H.TA

## Irudia » Anoeta



## ARGAZKILARI SARITUAK

Argazki lehiaketako argazki sarituak hauek izan dira: Oskar Rellosoren, *Eskoziar bat* eta *Eskoziako gaztelu bat*; Nuria Castañoren, *Zugarra murdiko kobak* eta *Zumaiaiko zelai bat*; Oihane Perezen, *Begien irria* eta *San Coi irla* (Senegal); Aitor Igarategiren, *Rolandoren pasagunetik* (Huesca) eta Nerea Otamendiren, *Arrantzan* (Sant Llorenç de Montgai). 2011ko egutegia egiteko erabiliko dituzte. E.MAIZ



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

www.euskalherriko **PLaza**.com % 10eko deskontua

**PAGOA** *Basque Beer*

**ANASUA** *Basque Beer*

**AIZOA** *Basque Beer*



**2011**  
*agenda*

*Dagoeneko salgai!*



**12€**

- Liburu dendetan
- [www.euskalherriko plaza.com](http://www.euskalherriko plaza.com)

**Ezaugarriak:**

- Hiru urtetako egutegia
- Intereseko telefonoak
- Euskal Herriko errepide mapa
- Aste osoa ikusgai

Aukera ezazu, bizi euskaraz **berria**



# Japoniako txotxongiloen lilura

Japonia da aurtengo Titirirajai Txotxongiloen Nazioarteko Jaialdiko lurralde gonbidatua; bertako lau txotxongilo talde etorri dira

Aranburu jauregiaren garaí eta estilo askotako txotxongilo japoniarrak ikus daitezke

## Higo Terradillos Tolosa

Inagan larumbaitetik txotxongiloen magiak hartu du Tolosa. Hainbat ikuskizun izango dira ikusgai abenduaren 2era arte herriko hainbat guneetan, bai gazteentzako bai eta helduei zuzendurikoak. Ikuskizunaz gain, beste osagarri bat ere badu Titirirajai Txotxongiloen Nazioarteko Jaialdiak. Aranburu jauregiaren irekizun dute leloa, hain zuzen. Aurtengo Japonia gonbidatua, beraz, lurralde hartako txotxongilo eskaintza dute erakutsitakoak.

Jaialdia antolatzen duen Tolosako Ekinbide Etxetik azalzen dutenez, aspaldian zuten Japonia Titirirajai gonbidatu izateko nahia, eta azkenem, onegiano luzek, eta zailltasun handiak gaitunditu eta gero kortsu dute. «Mezei izan du lurralde honetako txotxongiloak ekartzeko egun dugun esfortza, ziur baikaude jaialdira nahiz Aranburuko erakusketara hurbiltzen direnak bileratuta geratuko direla», diote TEeko ordezkariak.

**Txotxongilo tradizionaletik garaikidera bidala**  
Japoniara bidaltzeraz gonbidatzen du erakusketak, haina ez edozein motako bidala, txotxongiloen historiara, hain zuzen. Hain, tradiziozkoenak diren elementuekin hasten da bilbideta. Lehen zati horretan Japoniako



Adaxekin maniatu daitezkeen txotxongilo baten adibidea. it

beretako jantziarekin apaindutako txotxongiloak begirta daitezke. Horien artean, bereziak, hiru lagunen artean maniatzen diren burrukiak dira.

Erakusketan aurrera egitea denboran aurrera egitea da, pertsonaia modernoagoekin egitago baitu topo leiztaldeak. Baina txotxongiloen erari dagokionez, hart erakuskerak, esaterako, agertuko baitira. Ehmaka txotxongilo osaturiko erakusketaren auzen zatian, *Hiru Mosketarien* pertsonaiak eta euren elementuak ikus daitezke. Hain zuzen ere, Japonian telesail bat ari diren egiten pertsonaia horiek baliatuz.

Ikusleak txotxongilo guztiak buruko informazio jasokorren artean, harriduraz eta liluraz utziko dituen elementu ugari gordetzen ditu Aranburu jauregiarekin erakusketak.


## Titirirajai jaialdia

### ABENDUAK 2, OSTEGUNA

• **18:00.** Andaluziak Caracartontaldeak *Azken pirata* (El último pirata) lana aurkezten du, Goro Gabien.

• **20:30.** Japoniako Otome Burruki taldeak *Yoshitune eta Irena* darduden mila generozkoak (Yoshitune y los mil generos) lana, Topic-en.

<b>Gutunak</b>	<b>Gainditzenetik</b>
<b>Tolosaldeko tokiko euskarazko komunikabideen gutuna</b>	Zehu! Hitzkuntzan Eginakako Nazioarteko Igo Film Laburren Jaialdia izan genuen Tolosan azararen 20an. Oso arrakastatsua izan da, oso pozik gaude eta datorren urtean berriro antolatzeko indarra eman dugu. Eskutuz honen bidez, Tolosaldeko alkatetzari, Iain Beldarratz jaunari, nire esker ona adierazi nahin nioke, ekimen baki handi honetan gurekin izan denaiko. Gurekin izan zen deltu gurean prentsaurrekoa eta gurekin izan genuen berriro ere Jaialdiaren egunen bertan. Ezagutzen du komunitate gorraren egoera, badaki zeintzuk diren gure beharrik eta arduratzen da beraz. Egi, beraz, dela egun nahin nioke Eusko Jaurlaritzari eta Gipuzkoako Foru Aldundiarri datoren urtean gure gonbidapena onartu eta Tolosara etor daitezten. Bertan ikusiko duzue pertsona gorriko zenera joateko gogoz gaudela (gutuntza egin dezagula, ez baita azpititulu iduri pelikularik), eskubidea dugula eta gozarte oso alde behar dugula. Geroa ikusitokiak leiztaldeak ez dusan nahiz esizitzen ez garenik. Jaialdi hau zinea ikusteko aukera bat da guretzat eta zuertzat bertan. gaur ikustekoa, eta gure errealitate pikxa bat ezagutzekoa. Ez alferrik galdu. • <b>Julian Rodríguez</b> , Tolosaldeko Goleiko Pertsona Gorenak eta.



Txotxongilo tradizionalak nahiz berriak, denetarik dago ikusgai. it



Pertsonaia ezagun ugari ikus daitezke erakusketan. Hiru mosketarien txotxongilo hauekin, esaterako, telesail bat ari diren egiten Japonian. it



Oh! bezala, gaztetxo ugari pasako dira egunotan Aranburutik. it

**Gozatu zure irratia kutxan** hiri gureak magiak duen. **Titirirajai '10 jaialdia** gure dardaren.

Titirirajai '10 jaialdia gure dardaren. Titirirajai '10 jaialdia gure dardaren. Titirirajai '10 jaialdia gure dardaren. Titirirajai '10 jaialdia gure dardaren.





Alfonso Porres, Maya Alvarado eta Gustavo Meoño, 'La Isla' dokumentala aurkeztera etorri ziren Guatemalatik. AB

Tolosako zinema sozialaren emanaldian estrenatu zen, Euskal Herrian lehen aldiz, 'La Isla' dokumentala. Guatemalako hiru gonbidatut, genozidioaren inguruan hitz egin zuten.

# Egiak eztanda egin zuenean

## Agurtzane Belaunzarán Tolosa

**G**ogorra da dokumentala. Guatemalako, 1960 eta 1996 bitartean bizitako errealitatea bezain gogorra. Gerra zibileko urte hauetan, estatuak burututako krimenek triskantza eragin zuten gizartean; 250 mila pertsona erailak eta 45 mila desagertuak.

Gobernuak inoiz ez du deus egin errudunak zigortzeko. Gezurriari eta injustiziarri, patua jarri zitzaion ordea parez-pare. 2005ean Guatemalako hiriburuari, leherketa baten ondorioz Polizia Nazionalaren Artxiboko dokumentuak aireeratu baitziren. Egiak tokia bilatu behar eta 80 mila dokumentu argia ikusi zuten.

Dokumentu hauek dira *La Isla* dokumentalaren ardatza. «1975 eta 1985 urte bitarteko dokumentuan atzeman dugu Giza Esku-

bideen urraketa handiena» azaldu du Gustavo Meoño, Polizia Nazionalaren Artxiboko zuzendariak. «Poliziak beti ezeztatu egin zuten dokumentu hauen existentzia. Isiltasunarekin ahaztu nahi zuten gertatua. Baina, eztanda-oren ondoren, 8 kilometro osatzen dituzten kaxak aurkitu genituen. 80 mila dokumentu guztira» gaineratu du Meoñok.

Uli Stelzennerrek zuzendu duen dokumental, 85 minutuan laburtzen du, isiltasunak orain arte gorde dutena. Luciernaga kultur eta ikusentzuteko elkartearen laguntza izan du zuzendariak, irudiak eskuratzeko. «Alemania, Frantzia eta Estatu Batuek utzi zizkiguten artxibo irudiak dokumentala osatzeko» azaldu du Alfonso Porres, elkarteko zuzendariak.

Eskenatoki nagusia hala ere, *La Isla* kartzela sekretua da. Eztanda agerian utzi zuena. Ber-

tan, 147 langile ari dira dokumentuekin lanean. Langileen testigantzak ere dokumentalaren parte dira; aita desagertuaren dokumentua aurkitu duen artxiboko langilearena kasu.

Artxiboa egun zabalik dago, desagertuen familiek informazioa eskura dezaten bertan. Dokumentala grabatzen ari ziren bitartean, anai arropa anonimo batzuk hurbildu ziren bertara egia-oren bila. Dokumentaleko protagonista bihurtzeraino. 22 familiar desagertu zitzaizkien gerra garaian. Beraien testigantza latzak, sarraskiaren kontakizunek, begietatik darien tristurak, familia, generazio eta gizarte baten suntsiketa azaltzen dute.

### Komunitate indigenen aurka

Gerra Hotzaren urteak ziren. Edozein mugimendu ezkertiarriratsua zen garaia. Guatemalako gobernuak ere bazituen erre-

boltariak etxean eta Estatu Batuen eta Israelen laguntza izan zuten.

Halaxe baieztatu du Maya Alvaradok, Emakumeen Batasun Nazionalako koordinatzaileak: «Guatemalako, Estatu Batuen eta Israelen laguntza izan zuen plan estrategikoa bat egiteko. Bertan, Guatemalaren barne etsaiak di-seinatu ziren, etsaiak komunitate indigenak ziren, Mayak». Komunitate indigenak izan ziren gaztigatuenak. 600 komunitate desagertu ziren eta miloi bat pertsonen desplazamendua suposatzen zuten.

Alvaradok eta Mayak bat egiten dute «Hegoamerikaren historian egon den genozidiorik gogorrena» dela aipatzean. «Nazio Batuen Erakundeak onartu du, genozidioraino iritsi zela Guatemalako Gerran gertatua, baina Guatemalako gobernuak nahia-gu do gertatua ahanzte» azaldu

du Alvaradok, Artxiboko zuzendariak.

Egiak eztanda egin zuenetik, Guatemalan jende asko hitz egiten hasia da. Beldurra gainditu eta beraiei gertatua lau haizetara zabaltzen ari dira. Emakumeek urte horietan jasan zuten indarkeriaren adibide garbia da hauxe. Sei urte dira, Maya Alvarado emakumeen aldeko eskubideen alde lanean ari dela. «Emakumeen aurkako sexu indarkeria estrategia militarra zen. Gizarte egitura-keta emakumeen duintasuna suntsitzea zuten helburu» azaldu du.

Pixkanaka bada ere, emakumeek hitz egiteko duten beldurra gainditzen ari direla esan du. «Emakumeek jasandako sexu indarkeriaren aurkako kontzientzia ekitaldian, 110 emakumek hitz egin zuten» gaineratu du.

### Errudunak kalean

«Mundu guztiko sarraskietan horixe egin da, gertatua ahaztu, isildu, horrela bakarrik justifikatzen baita errudunak zigorrik gabe geratzea» esan du Alvaradok. Meoñok bere lanaren helburu nagusienetakoa «errudunak identifikatu eta zigorra ordainaraztea» dela esan du. «Zen abizenak dituzten agintari errudun batzuk zigorrik gabe geratu dira eta orain presidente izateko apustua egiten ari dira, hau onartezina da. Berrituz ez ditugu boterean nahi» aipatu du Alvaradok.

Hautsak arrotzen hasi direla leporatzen badie batzuk ere, egia-oren alde eta injustiziaren kontra lanean gogor jarraitzeko asmoa dute. Zenbaitetan egiten duten lanagatik beren burua arriskuan ikusten badute ere.

*La isla* dokumentala beso azpian dutela etorri dira, zinema sozialeko emanaldietan aurkeztu asmoz. Gustavo Meoñok, Maya Alvaradok eta Alfonso Porresek urteetako isiltasuna hausti dute Guatemalako mugetatik harata. Beraien ahotsa, orain arte inoiz kontatu ez dena, lau haizetara zabaltzeko indarra eta beharra dute. Tolosako aurkezpena arrakastatsua izan zen oso. Galdera asko egin ziren, zalantza eta jakin mina sortu zuen gaiak. Agian, gure historian ere gertatu delako horrelakorik.

• [tolosa.hitza.info](http://tolosa.hitza.info)

TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO

**hitza**

bertako egunkaria

egin zaitez harpidedun!

**902-82 02 01**

(Astegunetan 08:30-20:30 / Larunbatetan: 09:00-13:00)

[www.tolosaldeko-hitza.info](http://www.tolosaldeko-hitza.info)

eraman/bidali izen-emate orria:

Araba etorbidea 5 behea • 20400 Tolosa  
Herriko plaza 1 • 31860 Leizua

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak: \_\_\_\_\_

• Lanbidea: \_\_\_\_\_

• Helbidea: \_\_\_\_\_

• P.K.: \_\_\_\_\_

• Posta elektronikoa: \_\_\_\_\_

• Kontu zenbakia:

• N.A.: \_\_\_\_\_

• Jaioteguna: \_\_\_\_\_

• Herria: \_\_\_\_\_

• Tel.: \_\_\_\_\_

Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa, Datu Pertsonalak Babesteko, betetik, jakinarazten ditugu zure datu pertsonalak TOLOSALDEKO HITZA S.L.ri hitzartze automatizatu batera pasatuko direla, enpresak dituen eskaintzen berri emateko, zure esku dago ikusteko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta kontra egiteko eskubideak erabiltzeko, Hala ere, zure nahiz gure gero, datu helbide honetara: TOLOSALDEKO HITZA S.L. Araba etorbidea 5 behea • 20400 Tolosa, edo [harpidetzea@hitza.info](mailto:harpidetzea@hitza.info)

# Jon Ander Izagirre XIX. Frontenis Txapelketa azken txanpara iritsi da

Azaroaren 20an hasi zen eta asteburu honetan jokatu dira azken partidak; banaka eta binaka ari dira

**Esti Ezeiza** Berrobi

Jokoan da Begi Gorri elkarteak antolatutako 19. Jon Ander Izagirre Frontenis Txapelketa. Azaroaren 20an hasi zen eta jada iritsi da azken txanpara. Asteburu honetan jokatu dira final laurdenak, finalerdia eta finalak.

Hiru ataletan banatu dute Txapelketa. Alde batetik, binaka, nesken eta mutilen multzoak daude. Bestetik, banaka, mutilena. Bi asteburuetan jokatu dira partidak eta orain erabakiko da zeintzuk sailkatuko diren final laurdenetarako.

Binaka, mutiletan, 44 bikotek eman zuten izena, banaka berriz, 29k eta nesketan, lauk. Antolatzaleek azaldukoaren arabera, «hasiera batean bostek eman zuten izena, baina batek mina hartu zuen eta ez parte hartzea erabaki zuen».

Banaka, urte askoan garaile izan da Nikolas Artola berrobita-



XVIII. Frontenis Txapelketako finalistak; iaz 70 lagun inguruk hartu zuten parte. HITZA

rra. Baita iaz ere. Baina, aurtun ez du izena eman eta beste norbaitek eramango du txapela etxera. Hala ere, binaka hor ariko da. Nesketan berriz, Nagore Lizardi elduindarrak eta Amaia Agirre Villabonakoak osatutako bikotea ez da lehiatuko aurtun. Honenbestez, ikusi egin behar zeintzuk iristen diren finalera.

## Asteburuan azken partidak jokoan

Larunbatean, abenduak 5, binakako eta banakako final laurdenak jokatu dira. 09:00etan hasi-

ko dira norgehiagokak eta 18:30ak arte luzatu. Egun horretako emaitzen arabera erabakiko da nortzuk igaroko diren hurrengo egunean izango diren finalerdietara. Hasteko, goizean, 10:00etatik aurrera, bikotekakoko jokatu dira, eta arratsaldean, 17:30etik aurrera, buruz burukoak.

Nesken txapelketa berezia izango da, lau bikote ari direnez jokoan, denak denen kontra lehiatuko dira. Emaitzen arabera, hauetatik bi bikote sailkatuko dira finalerako.

Hilaren 7an goizean eta arratsaldean izango dira partidak. 11:00etan hasita, hiru eta laugarren postuak erabakiko dira. 17:30ean berriz, mutilen binakako azken partida jokoan izango da, ordu bat beranduago, neskena, eta azkenik, 19:30ean, banakakoa.

Txapelketaren irabazleek txapela, garaikurra eta afaria jasoko dituzte sari gisa. Bestalde, urtero legez, finalaren ostean, bertaritzen diren parte-hartzaileen artean kirola egiteko materiala zozketatuko dute.

## Martintxon etxean elkarte bat sortzeko bilerara deitu dute biharko

**Erredakzioa** Belauntza

Belauntzako Udalak elkarte bat antolatu nahi du inauguratu berri duten Martintxon etxean. Horretarako, interesa duten belauntzar guztiei (herrian bizi direnei eta herrian jai direnei) deitzen die, bihar 20:00etan egingo duten bilera parte hartzeko. Hau Belauntzako kultur etxean izango da.

Azaroaren 21ean inauguratu zuten Martintxo beheko lokala. Orduan esan bezala, udalaren helburua da, «behe solairuko lokal horretan gizarte eta kultura jardueretarako aretoak egokitzea».

## Euskararen egunaren harira, Oihenart eta Zeberio gaur Bonberenean

**Erredakzioa** Tolosa

Euskararen Eguna ospatzeko asmoz Galtzaundik kontzertu bat antolatu du gaurko. Maddi Oihenart eta Juantxo Zeberio izango dira artista gonbidatuak eta emanaldia Bonberenean izango da. Honekin elkarlanean antolatu baitu euskara taldeak ekimena.

Abeslari zuberotarrak piano-jotzaile tolosarraren laguntza izango du. Doako kontzertu honek arratsaldeko 20:00etan izango du hasiera.

Bien artean egindako *Baldi* izeneko lana aurtun grabatu dute. Disko samurra da; poesiak eta musika tresnek bidea ematen diote Maddi Oihenarten ahotsari. Juantxo Zeberio moldaketa eta komposizio lanetan aritu da. Tolosarrak egindako ekarpenei esker, abestiei folk eta jazz ukituak antzematen zaizkie.

## Antzerkia eta zinema euskaraz asteburuan

Kultur Elejiraren baitan 'Pantxika eta Txinparta, ederra zalaparta' emanaldia izango da bihar arratsaldean.

**Erredakzioa** Areso

Zurumurrur taldekoek *Pantxika eta Txinparta, ederra zalaparta* emanaldia aurkeztuko dute bihar 17:00etan eskolan izango da saioa. Ekitaldi hau Leitzu, Goi-

zueta, Areso eta Aranoko euskaraz zerbitzuak antolatutako Kultur Elejiraren baitan dago.

Pantxika eta Txinparta magia, musika eta mila jolasetako bidaian galduko dira, publikoaren batera, lagun baten festa prestatu nahian.

Itxuraz ezertarako balio ez duten gauzekin mundu bat eraikiko dute. Beraien esanetan, «irudimena baita opari bat egiteko behar dugun guztia».

Saio honez gain, beste ekitaldi bat ere izango dute asteburu luze



Aresoko haurrak aztoratuko dituzte Pantxika eta Txinpartak. I.T.

honetan Areson. Izan ere, datorren asteazkenean, hilak 8, 18:00etan, Euskarabideak antolatutako zikloaren barruan, zine

emanaldia izango da euskaraz. *Ponyio amildegian* filma izango dute ikusgai, eskolan herriko haurrek.

**EZAGUTU WEBGUNE BERRIAK**

**www.TOLOSALDEA.hitza.info**  
**www.IBARRALDEA.hitza.info**  
**www.ALEGIALDEA.hitza.info**  
**www.LEITZALDEA.hitza.info**  
**www.TOLOSALDEA.hitza.info**  
**www.ANOETALDEA.hitza.info**  
**www.VILLABONA-AIZTONDO.hitza.info**

## Iragarki laburrak

### SALGAI

■ **Etxebizitza.** Bidegoian, Goiaz. Prezio berria!!! Aukera paregabea! Eraikuntza berriko etxe atxikia salgai. Estreinatze, material oso onak. Portxe, terraza eta lorategiarekin. 943 30 40 38.

■ **Lokala.** Tolosako erdigunean, iskina egiten duen lokala sotoa-

rekin. Erakusleio handiekin, Egokitua, aproposa bulegorako, fotokopia edota aldizkari dendarako... 60.000 euro. Deitu 943 30 40 38ra.

### ALOKAIRUA

■ **Etxebizitza.** Borda edo base-ri xume bat alokatuko nuke. Deitu 634 45 9110ra.



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1.687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldea.hitza.info

**Zuzendariordea:** Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitate:** 661 678 818 tolosaldean\_publici@tosaldekohitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aitzondo@hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@hitza.info.  
**Ibarraldea:** 687 410 118. ibarraldea@hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@hitza.info.  
**Leitzaldea:** 687 410 118. leitzaldea@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko ideak:**



eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezket, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeako, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

# Beotibarren 75. urteurrenean pilota partidak eta omenaldiak antolatu dituzte

Gaur hasi eta hilaren 8ra bitarte pala, zesta punta, erremontea eta esku pilotako lehiak jokatu dira

tuko dituzte. Horien artean, Xalazubieta eta Bengoetxea VI-Beginoren arteko partida azpimarratu behar da, hilaren 8an arratsaldean jokatu dena. Omenaldiak ere egun honeta edukiko dute lekuak.

## «Pilotaren katedrala»

Pilotalekuaren urteurrena aurkezteko aurpegi ezagun ugari elkartu ziren atzo Tolosako Beotibarren. Alde batetik, Jokin Bildarratz eta Oskar Renedo udal ordezkariak eta bestetik, pilota-

ren munduarekin lotura zuzena duten pertsonaiak. Hauen artean, Aspe, Asegarce edo Galarretako ordezkariak edota eskualdeko pilota elkarreetako arduradunak aurkitzen ziren.

Egun hauetan, Beotibar «pilotaren kapitala edo katedrala» bilakatzeko nahi dute. Horretarako zesta punta, erremontea, esku pilota edota paleta gomako partidak antolatu dituzte. Lehia batzuk ordainduta izango baldin badira ere, besteak dohain iragarri dituzte.

## Erredakzioa

Zesta punta jaialdi batekin emango zaio gaur hasiera Beotibarren 75. urteurrenari. Ospakizunek ordea, hilaren 8ra bitarte iraungo dute eta pilotaren alor ugari uki-



Txotxongilo jaialdira etorritako haurrak lekuko zirela eskaini zuten atzo prentsaurrekoa. A. IMAZ

## Agurrak



**Urte askoan!**  
**Ana Jesus Arana (Anoeta).**  
Guapisima! Familia guztiaren partetik.

**agurrak**

urtebetetzeak - urrezko ezteiak  
ezkontzak - jaioberriak  
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera, Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

## Agenda

### BILERAK

■ **Tolosa.** Alde Zaharra Dendak eta Igarondo elkarteek Tolosa&Co elkarte osatzeko batzarra, 20:30ean, udaletxean.

### ERAKUSKETAK

■ **Tolosa.** Japoniara Leihoa Aranburu jauregian ikusgai, Titi-rirai Txotxongiloen Nazioarteko jaialdiaren barruan, abenduaren 5era arte.

■ **Tolosa.** Indonesiako txotxongiloak ikusgai Topic zentroan, urtarilaren 10era arte.

### HITZALDIAK

■ **Tolosa.** Elikadura portaeren nahasteak. Informazioa eta prebentzioa hitzaldia Orixe Institutuko Gorosabeleko E gelan, 19:00etan. Acabe elkarteko psikologoek emango dute.

■ **Alegia.** Mendebaldeko Saharari buruzko hitzaldia, Kultur

Etxean, 19:00etan, Askapenaren eskutik.

### IPUIN KONTAKETA

■ **Tolosa.** Miriam Mendoza ipuin kontalaria, Errotan, 18:00etan.

### ZINEMA

■ **Tolosa.** Leidor aretoan 19:15ean eta 21:45ean, *Louise-Michel* filma zine forumean.

## Farmaziak

### GAUR

■ **Tolosa.** Azpiroz, L. Amarotz auzoa, 9. 943 67 51 18.

■ **Leitza.** Plaza, M.T. Elbarren, 36. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.



## Helduentzat eta umeentzat

Abenduak 24arte egiten diren erosketengatik 3 zozketatan parte hartuko duzu:

- Spa zirkuito bat
- Posada batean aste bukaera
- Paradore batean aste bukaera



Errementari Kalea, z/g  
**TOLOSA**  
Tel.: 943 67 16 30